

Predikuak

Muruzabal, 1751

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Jose M. Satrustegi, 1987, Euskal testu zaharrak I, Euskaltzaindia, Iruña.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Predikuak

Muruzabal, 1751

I

Sermón de la Purificación de Nuestra Señora Tulerunt illum in Jerusalem ut sisterent eum Domino (Luc. 2. 22)

Cein andia izandu zen Maria Ssaren. (Ama Virginaren) humildadea nere chatolicoac apenas arquinduco da ent(e)ndamentu edo cenzu humanoric explicatu dezaquenic eta asqui ponderatu dezaquenic; cergatic humildadea baldimbada virtute bat aiñ andia, ece jarricen baice oposicio eta fuerza eguiten altivez edo (soberbiari) dignidadeari, eta oneq aren naurria izan bear barin badio, de tal suerte, ece cembatenas andiago den dignidadea persona batena amberze edo gueago izeten da eguiten duen humildadea virtuteas. Delariquen bada cierto Ama Virginaren alteza ta dignidadea dela ain andia, bada izanduze J(a)ngoicoaren Ama, cein baita atributo edo perfeccione andi bat casi infinito, de la misma suerte, consideratu bear dugu aren humildadea. Virtute oni beguiratuci J(ai)ngoac especialquiro erran zuenean Maria Ssmac. ecce ancila Di. etc Jauna ona non dago zure sierva ta zure esclava, eguin bedi nere baitan zure borondatea eta podere andia, bada atrazitueneco agotic Maria Ssac. iz humildades beteric daudenabec, ezue aguardatu gueiago, baicic Jaisicen da bereala cerutic casi obligaturic humildade andi onen medios conzebicera Maria Ssren. entrañetan. Ala c(o)nfesacen du berac, virtute onenganic etorri zequiola grandeza gucia, cein baita izatea J(a)ngoicoaren ama, quia rexpexit humilitatem

ancilae suae etc., eta bere vici gucian guardatu barimbazue Maria Ssac. Virtute au ceimbeite humildadea, eta onengatic Pueblo eta gende guciec daicen diotela dichosa, beatam, bienaventurata; baña egungo egunean icusten dugu pat(e)nte ta manifestu humildade au bada nai izandu zue purificatu compliceo Moysesec manacen zuen zuen legeareq(ui); bada ce lege au, Mulier si suscepto semine pepererit masculum, munda erit septem diebus extra dies separationis menstruae ta ala cumplitu zue legue au c(on) firmaceagatic berce andreequi, bada ce leguea orduan: andre batec izaten baldimbadu matrimonio sandutic seme bat, gueldituco da manchaturic zazpi egunes, eta zorzigarren egunean eramocodu Elicera bere semea garvicera becatu originaletic lege artan ciren ceremoniequi, bada ce demborartan odol pisque bat isurzea, orei den bezela Bataiua, eta aren Ama gueldituco da oqueita amar egunes elizaco gauzeric icutu bague, eta esta sartuco Elizan bere egunac cumplitu gave, eta cumplituric juaen da templura bere ofrendarequi, juaen da sacerdotearengana ofrecituco dio eta otoitz egiñen du sacerdoteac arengatic, eta gueldituco da purificaturic eta garbia. Au da nere fielac dembora artaco leguea, eta leguea ontara sujetatu ze Maria Ssa. izanic jaioces, p(e)nsamentus, izes eta obra gucies pura, eta garvitasuna bera, bada jaquin bear dute guciac ezituela comprendicen legue onec Maria Ssa. eta bere seme preciosa cergatic ezpaice jaio gu jaiocen garen bezela martirizacen dizquiogula gure Amegui beren entraña guciac, bada Maria Ssaren. seme bacarra jaiocce unicen celariquen bere amaren entrañegui ala nola argui bat pasacen baita vidrio edo espilluatic calte, edo dañoric eguimbague vidrioari, modu edo manera ontan izanduz Jesusen jaiocce Ama Virginaren entrañetic. Jaquinic bada Maria Ssaren. pureza andia, ceñec mereji baitu comparacea iguzquiarequi, illarguiarequi eta izarrequi, izandubaze garvia eta pura gorpucean eta ariman, eta aren Jaiocce izandu baze Azuzena edo Lirioarena bequela, ceñec despeicen du sorceracoan olore frag(a)nte bat, cer necesidade zauq(e) bada purificaceo Andre eder onec? Ezue berce motivo, causa, edo necesidaderic izandu, probaturic dauqueten bezela, baicic emateagatic zauri exemplo eta eracusteagatic obedencie eta humildadea imitacen zuela bere seme Jauna cein sujetatu baice borondate osoarequi circuncisioaren leguera; evitaceagatic eta quenceagatic excandaloac artuco lutenac demborartan vici ziran gendeaiec ezparimbaze conf(o)rmatu leguearequi, (ala) gauza onetan eta honestoetan ematen digula ent(e)ndacera nola arquicen garen obligatuec obra onac eguitera choil ab(u)ndanteac gauren animen salbamentuco, eta cerua conseguiceo, eta ez ematera gauren proximo lagunegui ocasio gaistoric izes eta obres becatuen erorceo, cergatican escandalosco becatua da choil gravea, eta andiago guizon batec erioze bat inbaleza baño; eztadiela oyen discrecioa admiratu erran dutenas, bada ala erraten du Compañiaco Doctore andi batec Aita Francisco Suarez, eta Arregui Theologoc: peccatum scandali ex se maius homicidio. Escandaloco becatua da bere naturalezas andiago guizon bat ilcea baño. Eta cergatic izan bear du andiago eriocea baño: guacen probura. Cembat diferencia doaien animetic gorpuzera, aimberze doaie anima ilcetic gorpuza ilcera, eta escandalizazen duenac edo ezarrizen tuenac lazoac edo tropezuac erorceo projimoa becatuan deseacen du bere aldetic Projimoaren arimaren eriocea, eta ala evastea, bofeton bat ematea, edo escuac goracea bere proximo lagunaren contra da pecatu chiquiago, escandaloco becatua baño.

Claroago explicatuco diotet nere p(e)nsamentua. Escandaloco becatua, dio Doctore onec, oponicen dela directamente Encarnacioco Misterioari, eta gure Jaun(goico) divinoaren erredempcioari Cergatic Jesu Xspto. etorrice mundura billacera eta salvacera icusiric gu guindaudela galduac culparen azpian, eta munduco linaje gucia, apiadaturic bere misericordia infinitoas; ala errat(e)n du Sn. Lucasec cap. 19, 10, venit enim Filius hominis quaerere et salvum facere quod perierat, eta escandalizazen duenac perverticen du et(a) destruicen du Xstoc c(on)vertitu zuena, eta bere odol preciosoarequi rescatatu zuena eta de

verdad escandalocoac (edo) exemplo gaisto emat(e)n duenac bere vezinoegui erri batean dirade animen verdugoac, eta demonioen discipuloac bere sillan edo catedran sarturic dauzquienac. Sn. Pauloc daicen dio becatu oni maldadearen oranza, fermentu nequitiae. Empleo gucietan den dignidaderic andiena, erran zue Sn. Dionisio Areopagitic, dela animac c(on)verticea J(a)ngoiocaren legue santura omnium divinatorum divinissimum. Bercela Deabruarem empleoric gaistoena izanen da animac perverticea, eta vizize espirituala q(e)ncea escandaloco becatuerequi diabruarendaco, omnium diabolicorum diabolicissimus. Ez nuque sinistatuco ezpaleza Elizaco expositore batec Aita Cornelio a Lapide, maior pars hominum ob escandala damnatur, esaien partea guizonetan, eta obrena c(o)ndenacen da escandaloengatic; eta escandaloco becatua da eguite bat edo erran bat aniz aldiz naiz dela gauza ona ezauzen baldim badu bere baitan arren iza, edo eguitea izanen dela motivo, edo causa proximo laguna becatuen erorceco, eta anima gaissoari vicee espirituala quenceco. Asquida doctrinaric ezauturic bada inc(o)nveniente abec Maria Ssmec, eta sortuco cela murmuracio eta escandalo aniz Puebloan ez conf(o)rmaceas cost (u)mbrearequi, humildade andiarequi Juance templu sandura ofrecicera ofrenda eta olocausto Aita Et(e)rnoari bere seme Jaunarena, bada cego gure launa enojus beteric gizonaren c(on)tra gure lembisico Aitec eguin cioten injuriarengatic Paráisoan eta aplacatu baldimbazute Abraham et(a) Abelen sacrificioec lenago J(a)ngoicoaren justician, Maria Ssren. egunetan erran zue ezela izanen ofrenda edo sacrificio andiagoric, nola Maria Ssma, eta aplacatuco zuela ofrenda onequi bere enoju gucia eta justicia. Ea bada nere fiela ezautu dezagun humildadean aziric gauden, eta ezpagaude ala aziric escadezagun Maria Ssmari. Virtute au, bada Andre eder oni virtute onengandi etorri baldimbazequo aimb(e)rre ondasun eta dicha, izatea Y(a)ngoicoaren Ama, procuratu bear dugu guc imitacera eta vicicera vizize on bat, ematen diogula presentetaco gauren viozac.

O Maria Ssren humildadea, erran du Doctore batec -Hugo Cardenal(ac)-, bada ez sollic nai du alabatu eta predicatu dezaten, baicic iruqui dezaten eta despreciatu dezaten berze puebloco andre bat bezala, haec est vera humilitas quae non vult humilis predicari et quamvis virgo esset purissima non renuit inter ceteras mulieres nominata recenseri. Au da humildade verdADEROA, bada izanic Maria Ssa. pura ta garvitasuna bera ez zue iduqui despreciotaco contacea berce manchatu gucien artean. Bada cer inendugu guc nere chatolicoac, errat(e)n du Issaiasec (44,6): facti sumus ut in mundus omnes nos et quasi pannus menstruatae universae justitiae nostrae, guciac ciquincen gara, eta arquincen garade ciquinduec, edo manchatuec, eta gure obra on guciac arquincen dirala tela bat edo oial bat manchaturic arquincen den bezala odola edo b(e)rre mancha batequi, bada cer izanen dira berze iz edo obrac, onac diruditenac izanen baldimbadute mancharen señalea, eta nota eta Maria Ssmac. izanic pura eta garvia cumpliden baldimbadu purificacioaren leguearequi, a (qu)ando, edo noiz artio echodoncen du guizonac purificacera eta garvicera bere borondates eguin dituen culpac eta becatuac, ceñac dirade isuseago gorpuzeacoac baño. Eztu garvicera cer urruti Juan Aita confesore baten oñetan garvituco da eramocen baditu c(o)nfesio on baten circunstanciatic, edo requisitoac cein dirade confesioa, dolorea eta proposito firmea.

II

Dominica 2 quadrags

Assumpsit Jessus Petrum et Jacobum et Joannem fratrem ejus etc. Math. cap. 17

Negarres daude Siongo videac, errat(e)n zue lastime andierequi Jeremias profetac

icusizean estituela iorc freq(ue)ntacen, joateco solemnidadera edo f(e)stividadera. Viae Sion lugent, eo quod non sint qui veniant ad solemnitatem. Belarres beteric daude erran zue Lirac, eta andizen da belarra, eñ desamparaturic beren buruec icusicean, videa abec issuricen ditusten negarrequi erregaturic. Negarres daude, dio Sn. Buenaventurac, Sion catholico edo salvacio eternoco videac, alegracen direnean aimberze Babilonie infernaleco eta c(on)denatio eternoco videac. Alegracen dire infernuco videac icusiceas (icusies), eñ gend(e)as beteric; eta negar item dute glorieco videec icusiceas eñ desamparaturic, O Jaun divinoa, ceñ curseturic daude codicie, ire, odio, lujurie, gule, blasfemie, jurem(en)tu falso, maldicioa eta b(e)rce vicioen mediosco infernuco bide gogorreñe? eta cein azenduric daude Jangoicoaren amoreco, eta penitenciaren medios becatuaren aborreciceco videac? O cein azenduric daude becatoreac Jangoicoaren servizeas, cein beite glorieraco videa? Siongo videac, glorieco videac, negar eguize, negar; ece motivoric asqui dauq(u)ee negar iteco: Viae Sion lugent. Beñ deseacen dut ssaquitea baden arracioric ez frequentaceco glorieco videavec; ssaquiñ neinuque baden arracioric ez amaceco eta servizezeco Jangoicoa, glorieco premio eternoan esperan zarequi.

Sn. Matheoc erraten digu egungo evangelio Sandu(an) ece Xrto gure erre(g)ec eramozituela Sn. Pedro, Sn. tiago eta Sn. Juan, bere iru discipuloac Tabor cerizon oyan altoatera eta an transfiguretu zela bere iru dis(ci)poloen aurrean: assumpsit Iesus etc.. Eta cer vste duce dela transfigurecea? Da Xrto. gure erredentorearen arimec gozazen zuen glorie, p(a)rticipetu bague bere gorpuzeri, manifestacea et(a) p(a)rticipacea Jaun divino arren arimec gozazen zuen glorie bere gorpuzeri: au de transfigureciosa. Sto. Thomas de Aquinoc dio, ece Xsto gure erredentorea manifestatu ceiquiotela aimb(e)rze glorierequi iru discipuloegui transfiguretu cenean, aficionazeco gu gloriera eta emateco bere iru discipuloegui eta ayen bitertez guri glorie et(e)ernoaren esperanza: ut gloriam suam nobis ostenderet et ad eam obtinendam nobis provocaret.

Orey galdinzen dizet berris lenago galdin dizetena, eta errespondaceco uzi dugune, eta ya baden arrazioric ez freq(u)entaceco Sion Celestialeco, edo glorieco videac? Naut erran cerengatic estugun amacen J(ai)ncoa, esperazen dugun esqueros gloriera joatea? Bada ala nola ciudade batera ellegaceco den preciso ciudade artaco videas joatea, lo mismo ellegaceco gloriera da preciso ango videa ivilcea edo freq(u)entacea; esta b(e)rze videric glorieraco, beicic J(ai)ncoa amacea eta servicea; bada cer(e)ngatic estuze amazen eta servizezen? Nauze ss(a)quin cer(e)ngatic? Aizeze Dabid Profeta eta Penitente andiore eun eta emezorziguarren salmoaren azqueneco v(er)soan: inclinavi cor meum ad faciendo Justificationes tuas in eternum p(ro)pter retributionem; inclinatu zuela, dio Prof(et)a s(a)nduarec bere vioza J(ai)ncoaren servizezera eta amazera, eta guardazera arren legue S(a)ndue; eta cerengatic berac errat(e)n digu: P(ro)pter retributionem. J(a)ngoicoaren ganic esperazen zuen premioangatic. Cer beroac, cer ozac, cer egarriec, eta cer fatigüec estitu pasacen necazariac bere oficio trabajosoan? Eta au gucie: p(ro)pter retributionem, cosecha onan bilzeco esperanzarequi. Bada eimb(e)rze fatigue pasacen bauze zauren ofizioan cosecha edo ereicio onaren esperanzarequi, corpuz viciosoen alimentaceagatic eta besticeagatic; cer(e)ngatic estituzer freq(u)entacen Sion Celestialeco edo glorieco videac? Cer(e)ngatic estuze amazen virtuteac, Cer(e)ngatic estuze incline zen zauren viozac Dabid Profetac bezela J(ai)ncoa servizezera, amazera eta arren legue s(a)nduen goardazera? p(ro)pter retributionem glorieco eternoco premio andi arren esperanzarequi, cein beite arimen alimentu eta vestidure? Badaquize Cer(e)ngatic? Cer(e)ngatic ezpeituzer c(on)sideratzen estuze ezauzen glorieco premio andi ore, eta no(la) ezpaituzer ezauzen, orrengatic estuze c(on)sideracen eta apeteccicen; billececo bicioac aborrecicearequi eta J(ai)nco servizecearequi obra onen medios.

Desenguenetu zeiste Ctio fielac, eta ezauzaze, eze c(on)sideratu faltas glorieco premio eternoa, daudela infernuco videac eiñ freq(u)entaturic eta argatic ain alegre eta al c(on)trario, glorieco videac eiñ desamparaturic, Jeremias Profetac erran zuen bezela bere trenoetan eta argatic negarres beteric. Eta esta lastime andie egotea infernuco vide illuneyec eiñ beteric, eta glorieco vide alegreayec eiñ des(a)mparaturic negarres? Beñe proseguiçeco escazogun becatore arrep(e)ntitu gucion Ama oni, digule b(e)re grac(ia). Ave Maria.

Domine bonum est nos hic esse (Math. 17)

San Matheoc egungo evangelio Sanduen erraten digu: eze Sn. Pedro Apostoloac icusi zuenean Jesu Xrto. gure Erredem(ptore)a bere transfiguracioau eimberze glorierequi Taboreco oyanean, erran zuela: D(omin)e bonum est nos hic esse: Jaune onda emen egotea eta emen bizizea. Eta Sn. Ag(usti)n eta Sn. J(ua)n Dam(ascen)oc tratacen dute Sn. Pedro neciotaco, Sn. Pedro necioa? Bay por cierto. Es citue oreño pasatu Apostol Glorioso arrec padecitu bear cituen trabajuec, eszue oreño eman bere vicie guero eman zuen bezela J(a)ngoicoaren amoreagatic; eta nola deseacen baizue glorie trabajua pasatu edo padecitu beño len, argatic tratacen dute neciotaco. Sn. Agustin glo(rioso)a c erraten digu, eze mundu ontaco alegrie, gusto, c(on)tentu, eta c(on)veniencie guciac direla miserablen c(on)sueloac eta ez bienaventuretuenac: omnia huius mundi gaudia sunt solatia miserorum, non beatorum. Eta alare cembat arq(ui)nzen dire eiñ afanaturic mundu ontaco gauzengatic, eiñ itsuturic beren gustu eta vicio gueistoequi; eiñ acenduric J(ai)ncoas eta beren arimes erraten dutela Sn. Pedroc bezela, bonum est nos hic esse: on da mundu ontan egotea eta emen bicicea. Au beite alare necedade andie, eta Sn Pedrona beño andiegoa; cer (e)ngatic Sn Pedroc desseatu barimezuere dembora beño leen glorie, desatu zue glorie celestiala, bene becatoreac azenduric berze munduco glorie verdaderas sollic vici dire mundu miserable ontaco eta desterrontaco glorie vanos oreituric.

Bada cerda beici glorie verdaderas azenduric vizizea, aizea, cembeit temerarioe edo desalmatuec erraten dutena descaroatequi? be(r)ceinberce ponderatu bague gure salvacio, e (ta) Jangoicoa barimedago salvatu bear garela, salbatuco gara, eta berzela c(on)denatuco gara; cerue esce in astoendaco, beici gend(e)ndaco.

Ebec eta b(e)rze aniz orlaco desatino erraten tuste beren salvacioas descudeturic eta acenduric bizi direnec. Beñe ssaquin beaurze, Xstio fielac, ece J(ai)ncoac nei duela gucioc s(a)lvacea; Jaun divinoaren partetic esta faltatuco, beñe da preciso guc gauren partetic aleguiñe itea, vicioac aborrecicea, amacea J(ai)ncoa, eta cumplicea gucioc gauren estadoac manazen digune, eta berzela esta salbacioc. Ciertu da lo mismo, ece glorie edo Cerue escela eiñ astoendaco, beicic gendendaco; beñe galdeñen nioq(ue)te nic alaco desalmatueiegui: eta infernue norendaco ein ze? Astoendaco? Ez por cierto, beicic becatore glorie ver(dader)oas azenduric, eta beren salvacioas acenduric edo descudeturic, beren becatues arrep(e)ntitu nei estutenendaco. Bada nontaco cer errespondatu? Esta posible. Orei galdin neicodere zuetatic norbeitec Sn Lucasec bere Evangelio S(a)nduen amiruguerren cap(itulua)n erraten digune: galdin ciotela Jesu Xtori; Domine si pauci sunt qui salvantur Jaune erran cio batec Jesu Xtri, estire erranen diren guti salbacen direnac? Cer nauze Xstio fielac, cer nauze nic errespondazaten preg(u)nte oni? Erraten badizet direla aniz salbazen direnac, eguie erranen diet, bada erraten digu Sn J(ua)n Evangelistec cece icusi zuela J(ai)ncoan aurean eimb(e)rze b(ie)naventuretu, cece eszeiquiela c(on)tatu iorc: quam dinumerare nemo poterat. Beñe erran baneza g(uti) ece b(ie)nab(e)nturetu ayec ezin c(on)tatu barimecice iz(en) g(uti) ere c(on)denatuec beño iago direla es niqueze

erranen eguies, cergatic Jesu Xstoc, cein ezpeiteq(ue) engañetu, dio ece direla aniz deituec gloriera, beñe guti direla escogituec: Multi sunt vocati, pauci vera electi. Eta au estio bein sollic, beicic bi aldis: Sn Matheoc ogueigaren, eta ogueita bat garren capituloetan; berla gutiego dire escogituec edo salbacen direnac ecce c(on)denacen direnac. Erranen duze, ece cierto dela direla gutiego salbacen direnac, ece c(on)denacen direnac, c(on)paracen barimedire salvacen direnac gende guciequi, Xstio, gentil, judio, turco, moro eta b(e)rze gende guciequi? bada evec gucioc direla deituec servizezeco mundu ontan Jan(goi)coa, eta gozazeco b(e)rze munduan glorie; eta cierto dela cece ebetati gucietan iquenic aniz deituec, iquein direla guti escogituec edo salbatuec eta modu ontan, eta modu ontan, ent(e)ndazen dela Jesu Xstoren sentencie, aniz direla deituec eta guti escogituec Multi sunt vocati etc. Beñe Jesu Xston sent(e)nciau estela ent(e)ndazen cristioetatatic sollic, cerengatic Xstioetatic gueago direla salvacen direnac, ece c(on)denacen direnac au erranen duze.

Jangoycoari nei dequiola: Jesu Xstoren s(e)nt(e)nciau, direla gutiego salvacen direnac ece c(on)denacen direnac estadien ent(e)ndatu Christioetatic sollic, beicic g(e)nde gucietatic. Jangoicoari nei dequiola, nic plazer hau izenen dut orla iquen dadien. Beñe cierto asegurecen dizet, beldurtassun andibet ematen dire sentencie terrible au entendazen dela Xstioetatic sollic, icussiceac, ece aimberze Eliceco Sandu eta Doctorec asegurecen dutela.

Consultezen batugu Sn Nilo, Sn Theodoro, Sn Bassilio, Sn Efren, Sn Jn Chrissostomo eta berze aniz, arquituco dugu guciec asegurecen dutela, ece Xstioetatic sollic iago direla c(on)denacen direnac, ece salvacen direnac, eta ala Jesu Xston s(e)ntencie terrible ore, aniz direla deituec eta guti escogituec, sollic entendazen dela Xstioetatic, Paganoac, turcoac, moroac eta gentillec c(on)tatu bague. Dictamen terriblea da au guretaco Xstio fielac! eta aimberze S(a)ndurena.

Sn Gregorio gloriosoac dio claroqui: ad fidem plures veniunt, ad regnum celest(ialem) pauci producentur. Federa aniz eldu dire, beñe erreinu celestialera edo gloriera guti joaten dire. Federa etorcen direnac sollic dire Xstioac, eta argatic deicen gara fielac edo siñestacen dutenac, cer(e)ngatic, (cer(e)ngatic) siñestazen tugun misterioac; ebetatic bada, dio sandu gloriosoac, direla guti salbacen direnac, c(on)denacen diren c(on)paracioan. Lo mismo dio Sn Anselmoc; lo mismo dio Sn Agustinec, itz abequi: ipsi boni verique Xstiani qui per se ipsos multi sunt in c(on)paratione falsorunque Xtia (norum) pauci sunt. Xstio onac eta verdaderoac, dio Sandu gloriosoac, dire beñe c(on)paraturic Xstio gueistoequi, eta falsoequi, ciertamente dire choil guti. Eta Abulense Andieac, Jesu Xston sentencie, guti direla escogituec expliquen du modu ontan: pauci sunt electi, quia de Xstianis pauciores salvantur, guti dire escogituec, edo salvacen direnac, cengatic Xstioetatic beitiere gutienac salvacen direnac eta berac asegurecen du dictamen ontacoac direla Sandu eta Doctore gueienac.

Eta erreparacen bangu ongui Xtio gucien edo gueyenen descuidoa beren salvacioaren gueiñen, experienciec erramaracico digu guciogui s(a)ndu gloriosoec erraten dutena. Veguirezaze ongui eta arquituco duze virtutea p(e)rseguituric, vicioac eta maldicioac alabaturic eta estimeturic: Ycusico tuze abrasac, nausi eta echeco andreac despreciazen tustela beren nirabeac eta peonac eta tratacen tustela Xstioac estiren bezela, aniz itz injurioso eta afrentosoequi iten dizquotela neitusten agrabioac beren soldadetan eta jornaletan: aytuco tuze jornaleroac eta nirabeac m(u)rmurecen abratses eta beren nausi eta echeco andres; eta icusico duze estirela trabajacen obligacio duten bezela-irebeciceco beren soldata eta jornaleac, beicic sollic tirecen dutela egunen pasacera: icusico tuze nausi echeco andriac, aite eta amac, eta berze aniz, errespeto, at(e)ncio, reverencie eta obedientie

zorzeyotenac (desobedecituric) desobedituric, deserrespetaturic eta desprecieturic, mutil eta nescato, seme eta alaba J(ai)ncoaren beldurtasunic bague, eta gueizqui aziric daudenagatic, norc du culpe? Berec ezpeituste azizen J(ai)ncoac manacen duen bequela, cer significacen du, Xstio fielac, beicic descuido andi bet s(a)lvacioen queñean icusicea, ez sollic astregunetan beicic aun sseietan ere ain desamparaturic eta acenduric t(e)mplo s(a)nduan mezacoan eta vezperetacoan eta eiñ gendes beteric larreiñ oiec, eche oiec eta loc(al) oiec, ya barajarequi, ya murmurecen eta aniz gaste J(ai)ncoaren of(e)ndicen llanezequi eta norc du culpe? Lendabissicoa echen jabec lecu emateas, bigarrena aite ta amec ta nausi ta echecoandrec ez ecarriaraciceas beren nirabeac eta beren humeac meza nausire, eta Vezperetara; beñe cer milagro da ez etorzea zuen humeac eta nirabeac ezpazarate etorcen zauroc. Eta ebetas landara dute culpa Ezinegozi Jaunec ez embarazazeas plazaco eta eche secretuetaco eta sospechosoetaco diversioac oficio divinoen demboran eta lo mismo arrastan zorrietatic landara egoin diren bazela aniz aldiz, bedrazi amarrac artio eta ollarrac ersonatu artio arquizen ezpazayote quimerarembat iqueteco occasioarequi, eta quimera iquen edo ez iquen, dute obligacio estrechoa ecinegoci Jaunec embarazazeco diversio guciec zorrietatic landara. Ssaquin beaurze Xtio fielac cece ssayec disponitu cituen J(ain) ncoaren Magestadeac ez diversioraco eta ssauzqueraco sollic beicic aste gucico partes J(ai) ncoa sevizezeco eta aste gucico becatues c(on)fesio dolorosoaten medios Jaun divinoari misericordie escazeco, eta bueltaren bat edo berze divertizeco eta recreaceco animoa, beñe J(ai)ncoa ofenditu bague; divertitu bear da purezarequi eta onestidadearequi, beñe embatec estute berceeric iten ssayeco egunean, beycic enzun meza bat prisecan, etorri azquenac eta atra lendabissicoac, eta ojala, ojala, ezpalezazuete anitzec ofenditu iago J(ai)ncoa ssayeco egunetan, astregunetan baño.

Erranen duze acaso ece clarosco expliquetu neizela, beñe au de ene ogliguecioa. Sn Paulo Apost(olua)c erraten dire ece, sapientibus et insipientibus debitor sum (ad Rom cap. 1). Nei du erran Apostolo gloriosoac, ece sabioegui eta ignorantegui, abrasegui eta pobregui; chiquiegui eta andiegui dutela obligacio errateco c(on)venizeiotena, nic cumplitu bear dut neure obligacioarequi oyec, zuec, aprovechaceco eta ezpazarate aprovechacen desengaño ebetas ebec izanendire Juicioco egunean zuen fisquelie eta acusazaleric andiena Jesu Xsto gure Erred(e)ntorearen tribunalean.

Eta cer erranen dugu deshonestidadeas? Ha! vicio infame eta torpea! Onen medios c(on) denacen dire guciec edo gueienac, apenas escapacen daquio ior, ez guizonic eta ez andreric, ez zarric eta gasteric; guciec arrepacen ditu vicio itsusi onec. Au de sare barredera garbizen duena glorieco videata eta betecen duena infernuco vide zabal eta illen ore. O desgracie! Eta esta erremedioric? Bay por cierto, eta da Jesu Xsto gure Erredentorea: berac erraten digu aizea, eta itea c(on)tendite intrare per angostam portam; quia multi, dico vobis, q(ue)runt intrare et non poterunt; trabajazeiste cuidadorequi dio Jesusec, sarceco glorieco atari mearretic, cerengatic ssaquin aracitcen ditzet, ece anizec sartu neico dutela eta ecin sartuco direla. Sn Efreneac erraten digu, ece salvatu nei duenac bici bear duela apliquecio eta cuidado andierequi salvacioaren gueiñen sarceco glorieco atari mear eta erchitic; cergatic ala nola pasaceco inguirit(en) vgolde andi bet den preciso inguiritecea cuidado ta exfuerzo andierequi eta i(n)guiritecen esta ongui uren c(on)tra, den preciso vndicea eta itozea aniz aldiz icusi den bezela, lo mismo dio S(a)ndu glorioso arrec, da preciso peleacea cuidedo ta esfuerzo andierequi pasione apetitu eta inclinecio gueistoen c(on)tra, ez erorzeco becatu(an) ta ez undizeco infernu(an).

Eta nola Xstioetan beitre gutienac peleacen direnac vicioen c(on)tra eta seguicen dutenac cuidadorequi virtutea, argatic erraten dute Sandu eta Elizeco Doc(tore)c ece Xtioetic

direla gutienac salvacen direnac, estuze ezauzen Catholicoac ece orein Xstioac vizi dire descuidoarequi beren salvacioas arrazio dauquetela S(a)nduec errateas ece Xstioetatic gutienac direla salvacen direnac? O eta combat dauquete! Proh dolor! O dolorea, o desgracia mereji duena odolesco lagrimequi negaritea? ecce Xstioetatic, J(ai)ncoaren seme adoptivoetatic, arren Pueblo escogititic, eimberze galdu bear direla, eimberze c(on)denatu bear direla! Iduquitzes Jaune misericordie, Jaune bere huma(n)os, arqitu bezozquioten zenzuec, or icusi bezote, instruitu bezazqui ta mogui bezazqui berorrec Jaune even viozac inspirecio edo aviso f(ue)rte ta efficacequi eta ezpadire ebec asqui urriqueriarazizeco, castigue bezazqui mundu ontan; in virga ferrea azote gogor batequi, eritasunerequi, diot Jaune, miserierequi ta trabajuequi irequiarazizetoten castigo abec, Sn Gregorioc dion beq (e)la becatuec erchiric eta itsuturic dauzquiten beguiec, erre ta egosi beigueza(goque). Ezzagule barcatu mundu ontan deusere, nola barcatu dezazquigun eternidadean: hic vere, hic seca, hic non precas etc.